

SAN PEDRO JAIK 2023

Lekeitio

Ekainak 24,

zapatua

San Juan eguna

6:30 Eguzki dantza, Lekeitioko emakumeen aurrekua talan, Etorkizuna dantza taldeak antolatuta

10:00 I. San Pedroetako zesta-punta eskolen arteko topaketak

12:00etatik **15:00**etara: Salazoi eguna, Plazan, Aeroplano Bi elkarteak antolatuta

13:00 Eguzki dantza, Lekeitioko emakumeen aurrekua plazan, Etorkizuna dantza taldeak antolatuta

17:00 I. San Pedroetako zesta-punta eskolen arteko topaketak

20:00 Eguzki dantza, Lekeitioko emakumeen aurrekua plazan, Etorkizuna dantza taldeak antolatuta



Ekainak 28,

eguztena

San Pedro bezpera

18:00 Buruhandiak eta erraldoiak kalez kale, Lekittoko Itxaropena txistulari elkarteak animatuta

20:30 Lekitto musika bandaren kalejira

Ekainak 29, eguna

San Pedro eguna

7:00 Dei eittekuak kalez kale

9:30 Herriko txistularien diana

10:15 Lekeitioko Udaleko alkate eta zinegotzi jaun-andreen eta kofradiako lehendakari eta ardura-dunen udaletxetik elizarrainoko prozesioa, Lekitto musika bandak lagunduta

10:30 Meza Nagusia, elizako abesbatzak abestuta

Jarraian:

San Pedroren omenezko prozesioa, Lekitto musika bandak lagunduta. Amaieran, antzinako ohi-tura zaharrari jarraituz, San Pedroren irudiarekin Kilin-Kalako egingo da portuko santuaren irudi aurrean

Gero: Kaxarranka. Antzinako dantza ikusgarri hau bakarra da Euskal Herrian

Kaxarranka, San Pedroren dantzatu ostean, Kofradia aurrean dantzatuko da

13:00 Lekeitioko Etorkizuna dantza taldeak, Eguzki dantza edo Lekeitioko andren aurrekua dantzatuko du. Emakumeek belaunaldiz belaunaldi dantzatzen duten soka dantza hau, Euskal Herrian mantentzen den bakarretarikoa da. Horren ostean, Kaxarranka plazan

16:00 XVII. San Pedroetako esku pilota txapelketako finalak

20:00 Danborrada herrikoa ikastola aurretik hasita eta Aittitta Makurra txarangak alaituta. Zale-txuak taldeak antolatuta

Ondoren:

Suzko zezena plazan

21:30 "Txirrist" txaranga kalerik kale



Ekainak 30, barikua

San Pedro txiki

11:30 Buruhandiak eta erraldoiak kalez kale, Lekittoko Itxaropena txistulari elkarteak animatuta

12:30 Eguzkilore jubilatuen abesbatza, Baserri tabernan, Eskolapean eta Udaletxeko eskaileretan

13:00 Kalejira, Kaiganetik hasita Eskolaperaino, Lekitto musika bandaren eskutik.

Gero: Erromeria Eskolapean

18:00 XLI. Irrintzi txapelketa Talan. Izen ematea 17:30etatik 18:00etara

20:00 "Fan & GO" taldearekin erromeria Talan

23:00 Talatik udaletxerainoko kalejira, Lekitto musika bandak lagunduta

Uztailak 1,

zapatua

San Pedro baltza

11:00etatik **12:30**etara: Umeentzako jokoak, Rufo Atxurra plazan

12:00 Meza, eguraldiak laguntzen badu, San Pedro baltzaren aurrean, Tortola kalean

12:30 Lora eskaintza, San Pedro baltzaren aurrean, Tortola kalean

16:00 XXIV. "Kilin Kala" igeri lehiaketa. Garraitz kirol taldeak antolatuta

17:00 Mus txapelketa Sociedad Recreativa-n. Izen ematea 16:30ean



Garbijana s.l.
GARBIKETA LANAK
OKAMIKAKO INDUSTRIALDEA
608 87 49 60 • oiniz@euskalnet.net
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)



Kiñuka
Argazkiak-diseinu grafikoa
Biniloak







www.kinuka.eus



Argazkia: Erika Groth-Schnachtenberger (1950)